

# ERNESTO ETA ZELESTINA, EGUBERRIAK ETXEAN

Testua eta irudiak: GABRIELLE VINCENT

Itzulpena: EVA LINAZASORO

Azal gogorrean koadernatua. 24 x 22 cm. 40 or. 15 €.

**Ernesto eta Zelestina, Eguberriak etxean** (euskara)  
ISBN 978-84-9172-070-6. Gaur egungo klasikoak.

**La Navidad de Ernesto y Celestina** (gaztelania)  
ISBN 978-84-8464-419-4. Clásicos contemporáneos.

**O Nadal de Ernesto e Celestina** (galegoa)  
ISBN 978-84-8464-418-7. Tras os montes.

**Nadal a casa de l'Ernest i la Celestina** (katalana)  
ISBN 978-84-16804-59-7. Clàssics contemporanis.

–Ernesto, noiz dira Eguberriak?

–Sei egun barru...

–Baina... zuk hitza eman zenidan festa handi bat egingo  
genuela nire lagun guztiekin!

–Ez dugu sosik...

Eguberriak ospatzeko nahikoa da Zelestina adina gogo eta irudimena izatea; bere lagun Ernesto, ordea, kezkatuago dago neguko hotzarekin eta festa hori antolatzeke beharko luketen eta ez duten sosarekin. Baina, momentuko desilusioez haratago, Zelestina beti berearekin ateratzen da. Ernesto, on-puska eta eskuzabala bera, bere izaera arrazionala gaudituz eta hitz emandakoa betetzeko prest azalduko da, Zelestina ez zapuzte aldera.

Elkar-laguntzan bait dago istorio samur eta maitagarri honen gakoa: elkarrekin doaz basora beren etxe xumea apaintzeko gauzen bila, elkarrekin egingo dituzte marrazkiak, bata sukaldian arituko da besteak opariak biltzen dituen bitartean. Eta, halako batean, Ernesto kokin bilakatuko zaigu: festaratutakoak eta Zelestina bera zur eta lur utziko ditu, eguberri festa ahaztezin baten arima bihurturik.

80. hamarkadan Gabrielle Vincentek sortutako bilduma osatzen duten beste hogeitamar liburusketan bezala “Ernesto eta Zelestina, Eguberriak etxean” izeneko honek ere elkarriketa egitura du eta bere protagonista humanizatuen pisu emozionala du ezaugarri. Horrela, marrazkietan azpimarragarria da pertsonaien espresibitatea eta jestualitatea. Biñetetan edo orrialde osoak hartuz datozen irudi argitsuak dira, marra solteez eginak eta lainoki koloreztatuak.

Hartz handiaren eta sagutxoaren gorabeherak hunkitu eta munduarekin bat egiten gaituzte, benetako adiskidetasuna, zoriona gauza xumeetan aurkitzeko eta duten apurra besteekin partekatzeko gaitasuna erakusten bait dute.



■ **Gala:** Eguberriak, adiskidetasuna, eskuzabaltasuna.

■ **Zein Adinetarako:** hiru urtetik gorakoentzat, lehen irakurleak.

■ **Nabarmentzekoak:** alderdi fisiko ezberdinak, izaera diferente eta osagarriak; emozioak; laguntasuna, ontasuna, txirotasuna, superazioa; sormena, birziklatzea; egile berarenak dira:

“Ernesto eta Zelestina, kale musikariak” eta “Ernesto eta Zelestina, Simeon galdu da”

(Kalandraka-Pamiela).

■ **Liburuaren lagina:**

<https://issuu.com/kalandraka.com/docs/ernesto-zelestina-eguberriak-etxean>

## Gabrielle Vincent

(Brusela, 1928 - 2000)

Monique Martinen ezizena, Gabrielle eta Vincent bere aiton-amonengandik hartu zuena. 80. Hamarkadan haur liburuak idatzi eta ilustratzen hasi aurretik margolaria izan zen. Bere lanik goraiatuena *Ernesto eta Zelestina* bilduma izan da, zeina 2012an zinemarako egokitua izan bait zen eta honako sari hauek lortu: Zesar Saria animaziozko film onenari, aipamen berezi bat Cannes-eko Jaialdian, eta Los Angeles-eko Kritikarien Elkarteak emandako sari bat.



www.kalandraka.com

comunicacion@kalandraka.com

www.Pamiela.com  
etxea  
soltxate@pamiela.com